

HISTORIA TXATALAK

Oñatik hiru alkate batera zituenekoa

> Herriko alkatea aukeratu berri dugun honetan, historian atzera jo dugu Oñatik hiru alkate izaten zituen garaietara. Alde batetik kondeak izendatutako alkate **nagusia** zegoen, bestetik, herriak aukeratutako **ohiko** alkatea eta, azkenik, **Ermandadekoa**.

XV. mende erdira arte kondeak izendatzen zuen ohiko alkatea ere, baina 1447tik aurrera Gebaratarrek herriari eman zioten hautatzeko eskumena, herritarren askatasun egarria asetzeko helburuarekin, Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate* liburuan dioenez. Hortik aurrera, 1745era arte, herrian zeuden bi leinuen artean aukeratzeko zuten alkatea txandaka.

Hala ere, kondeak oniritzia eman behar izaten zuen, eta horrek hainbat auzi eragin zituen, Gebarako jaunek '*creo y pongo*' hitzak erabiltzen zituelako, alkatea berak jartzen zuela aditzera emanez, eta herritarrentzat iraingarria gertatzen ziren hitzok.

1783ra arte udaletxerik egon ezenez, kontzejuaren batzarrak alkatearen etxean egiten ziren. Kontzejuko kide izateko, noble familiakoa eta diruduna izan beharra zegoen.

Ermandadeko alkateari buruz ez dago informazio askorik. Zumaldek dio polizia-buru moduko bat zela, herritik kanpora gertatzen ziren (leinuen artean batez ere) liskar eta auzietan parte hartzen zuena. Halako zazpi egoten omen ziren Gipuzkoa osoan.

Garibai

> Jerardo Elortza

Auzo honen **beheko parte oso ezaguna** egiten zaigu oñatiar gehienoi: Dolaetxe baserria baino pittin bat lehenago dagoen Torreauzarako bidegurutzetik Madalenako zubirainoko kilometro bat pasatxoko zati hori, hain zuzen ere. Autoz Arrasate edo Bergararantz joateko edo alderantzizko ibilbidean, hortik pasatzen baikara sarritan eta derrigorrez. Erreka ondoko **alor lau samarrak eta aberatsak** ditugu horiek, maduran, ibarrean kokatuak, baina 1970eko hamarralditik aurrera fabrikaz bete zaizkigunak. *Ulma* kooperatibataldekoak dira, batik bat, industria horiek, baina ez bakarrik.

Baina badu Garibaik **eremu menditsua** ere. Aldapan gora lur-zerrenda luze eta erregular bat hedatzen da iparralderantz Antzuolako mugaraino eta Landarraitz tontorreraino. **Beheko aldean** aurkitzen dira **baserri, etxe eta lantegi gehientsuenak**, Oñati-Artixa errekatik urrin barik. **Goi aldean hiru baserri soilik** eraiki ziren, **kortak** izandako lur-sailetan eta Erdi Aroaren amaieran: **Duruan, Koixkar Azpikoa eta Koixkar Garaikoa**. Hori bai, hirurak izan ziren batzuetan bi bizitzatakoak.

Izenarena bitxia da, kasu honetan ere. Oraingo auzoa, ekialde eta hegoalde, batez

AUZORIK AUZO

Artixa-Oñati errekatik Antzuolako mugaraino zabaltzen da Garibai auzoa

ere Oñati-Artixa eta honen adarra den Irabiartzara errekek mugatzen dute. Baina errekek bestaldean ditugu ezkerretik, ofizialki Torreauzo deritzan auzoan, **Garibaiko dorrea eta Garibaiko errota**. Antzina Lazarragarren senide garrantzitsuak ziren Garibai familiakoak, biak luzaroan gure herrian eta eskualde osoan eragin handiko leinuak. Toponimoaren, leku-izenaren esanahia modu desberdinetan azaldu izan da. Baina badirudi **gari** eta **ibai** berbez osatua egon daitekeela, inguru hori gari-leku oparoa izan delako. Dena den, **ibai** hitza hemengo mintzaira arruntean aspalditxo ahaztuta dago.

Beste bitxikeria bat: Oñatiko baserri giroko hamasei auzoetan hainbat baseliza edota parroquia egon izan dira historian zehar; Garibain izan ezik. Koixkarren jaso zen 1925ean **Jesusen Bihotzaren ermita**, baina aurrekomendatarrek gauzatzen duten auzotasun bereziaren erlijio-premiei erantzuteko gehien bat. Egia da beheko garibaitarrek oso hurrean dituztela **Santxolopeztegiko Madalena eta Torreauzoko San Pedro** ermita zaharrak; baterako zein besterako joera agertu dute betidanik auzo honetakoek. Eta amaitzeko beste argibidetxo bat: **Madalenako eskola** zeritzan ikasleku ezaguna, gaur egun **Bikoitz** jatetxea dena, **Garibai barruan egin zen**, hor ere muga Oñati-Artixa errekek erabakitzen du-eta.



ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



IRAZOLA
Okindegia

Larraña auzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko labea